

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Foru Komunitatea Estatuko protokolo bati atxiki zaio ugatzen kontserbazioa sustatzeko

Nafarroak ugalketako hamar unitate ditu

Viernes, 28 de marzo de 2014

Nafarroa estatuko protokolo bati atxiki zaio ugatzen kontserbazioa sustatzeko, hamahiru autonomia erkidegok berretsitako dokumentua. Gaur egun, Foru Komunitateak espezie horretako ugalketako hamar unitate ditu.

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako kontseilari José Javier Esparza k ostegun honetan izenpetu du hitzarmena, eta hari atxiki zaie ere Euskal Autonomia Erkidegoa, Katalunia, Galizia, Andaluzia, Asturias, Kantabria, Errioxa, Murtzia, Aragoi, Gaztela-Mantxa, Madril eta Gaztela eta Leongo autonomia erkidegoak, alde batetik populazioa handitzen uzten duten ekimenak abian jartzeko, eta bestetik, haien banaketa beren Penintsulako lehengo okupazio-eremuetara zabaltzeko. Espainia espezie horretako populazio handieneko herrialdea da Europan, galtzeko zorian dagoena, ugalketako 130 unitate baino gehiagorekin.

2012-2013 kanpainan ugalketako hamar unitate zenbatu ziren Nafarroan, hamaika eremutan kokatuta, haietako hiru Nafarroako ipar-mendebaldeko eremuan, eta beste zortziak, Pirinio aldean. Denboraldi honetan bertan, ugalketako hamar unitate horiek bost errunaldi egin zituzten, eta handik bi oilasko atera ziren hegana. Elikadura gehigarria ematen zaie 13 puntutan, 2.776 kiloko janaria emanaz.

Hitzarmenaren edukia

Akordio honen bidez, autonomia erkidego sinatzaileek espezie hori kontserbatzeko ekimenen lankidetzara eta aplikazioa sendotzen lagunduko duten ekintzak sustatzeko nahia adierazten dute. Mehatxatuta dauden espezieen Espainiako Katalogoan galtzeko arriskuan dagoen espezieetat jotzen da eta Hegaztien Zuzentarauko I. Eranskinean sartuta dago.

Populazio hori zenbait faktoreren mende dago, eta epe labur eta ertainean haien bizirautea baldintzatu ahalko zutenak. Azken hamarkadetan etengabe hazten joan arren, populazioa oso handia ez izateak, haren banaketa-eremua murrizta izateak eta espezieak leku berriak kolonizatzen zailtasunak izateak populazio kalteberan bihurtzen dute.

Proposatutako ekintzen artean, Pirinioetan ugatzak kontserbatzeko dauden programa nahiz ekimenen aplikazioa, lankidetzara eta elkar laguntza sendotuko dira, Espainiako ugatzak kontserbatzeko Estrategiaren orientazio-esparrupean eta hurrenez hurren 2000 eta 2001 urteetan abian jarritako eta itxian hazitako Programaren orientazio-esparrupean.

Espainiako ugatzak kontserbatzeko estatuko estrategiak ere espezie

horren banaketa-eremu historikoaren birkolonizazioa barneratzen du, beharrezkoa bada birsartzeak eginez edo populazioak indartuz.

Ekimen horiek indartzeaz gain, izenpetutako protokoloak ugartzak kontserbatzeko beste neurri batzuk proposatzen ditu. Ahalik eta denbora laburrenean, ugartzak desagertutako mendiguneetan epe ertain eta luzean birsartzeko proiektu orokor bat egitea aurreikusten da, haien errekupeazioa planteatu daitekeen guneetan.

Gainera, Espainiako mendilerroen biodibertsitatea kontserbatzea sustatzen da ugartzak babestuz eta berreskuratuz, mendigune horien espezie-ikur modura, lurralde baten balorizazio-faktore modura eta landa-garapenerako aukerak sortzeko faktore modura. Espainiako mendiguneetako abeltzaintzako jardute tradizionalaren alde egiten da ere, ugartzaren kontserbazioarekin bateragarriak direnak.

Europar Batasuneko garrantzitsuen Pirinioetako bi aldeetan dago, Europar Batasuneko ugalketako unitate ezagunen % 85arekin, eta azken hamarkadetan demografia-joera positiboa izanik argi eta garbi. Espainiako ugalketako populazioa 134 bat unitatek osatzen dutela kalkulatu da, 84 Aragoi, 40 Katalunian eta 10 Nafarroan.